

ERANSKINA: “Garapenerako lankidetza proiektuetarako 2018ko udal diru-laguntzak emateko deialdia. Gizarte-politika Arloa, Lankidetza Atala”.

LAGUNTZA-MOTA	GARAPENERAKO LANKIDETZA
DIRU-LAGUNTZAREN XEDEA	GARAPENERAKO LANKIDETZA PROGRAMAK
Aurrekontu-saila	11.2317.48102
Sailaren deskribapena	TA, garapenerako lankidetza proiektuak. Garapenerako eta immigraziorako lankidetza
Zenbatekoa	140.000,00 €
Diru-laguntza emateko prozedura	NORGEHIAGOKA

1. XEDEA:

- 1.1 Herrialde txirotuen garapenerako lankidetza-proiektua izango da helburu jakin bat lortzeko diseinatutako ekintza-multzoa. Helburu hori zehatza, neurgarria, epe zehatz baterakoa, herrialde zehatz batean eta populazio zehatz batekin egitekoa izango da, eta, behin proiektua amaituta, teorikoki ondorio iraunkorrak izan beharko ditu.
- 1.2 Horregatik, oro har, unean uneko ekintzak (berez agortzen direnak) ezin izango dira aukeratu (materialak edo tresneria bidaltzea; ikastaro bakanak egiteko bekak; trukeak; pertsona batzuk hegoaldera bisitan joatea; etab.), baldin eta aurreko atalean zehaztutako betekizunak betetzen dituen beste ekimen handiago batean sartuta ez badaude.
- 1.3 Proiektuak irabazi asmorik gabea izan behar du (alegia, erakunde eskatzaileari edo haren tokiko bazkideei ezin die zeharka edo zuzenean diru-etekinik ekarri); eta ezin da proselitista izan (hots, ezin du politika-interes alderdikoiak lortzea xede eduki). Helburu nagusia izango da pobrezia-aren aurka borrokatzea, giza- eta erakunde-gaitasunak indartzea eta txirotutako herritar ahulen eskubideak bermatzea eta sustatzea.

2. NORI ZUZENDUTA:

- 2.1 Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei, esate baterako: GGKEak, erlijio elkarteak, fundazio eta erakunde parekatuak, baldin eta haien estatutuetan, helburuetan, eginkizunetan edo memoria-txostenetan berariaz jasota badago garapenerako lankidetza.
- 2.2 Eskatzaileek Bizkaiko Lurralde Historikoan izan behar dute egoitza edo ordezkaritza iraunkorra, eta lehentasuna izango dute Basauri udalerrian daudenak (alegia, lehentasuna emango zaie proposamenen puntuazioa zehazterakoan). Ordezkaritza iraunkorra dela jotzeko, beharrezkoa izango da ekintzaren ordezkaritza edo kudeaketa partekatua zuzenean egiteaz arduratzen diren egitura esanguratsuak Bizkaian izatea, eta hori behar bezala egiaztatzea, dagozkion agirien bitartez.
- 2.3 Gutxienez, dagokion deialdiaren argitaratze-egunaren aurretiko bi urteetan, eskatzaileak eraturita eta EAEko dagokion erregistroan inskribaturita egon behar dute (ahal dela, eta lehentasunez, Basauriko Udaleko Herritarren Parte-hartze Erakundearen Erregistroan, Modernizazio Atalean: Kareaga Goikoa 52. Tel.: 944 666 300).
- 2.4 Arestian aipatutako erakundeez osatutako partzuergoek ere eskabideak aurkeztu ahalko dituzte, betiere, aipatutako eskakizunak betetzen badituzte. Udalak bereziki sustatuko ditu

partzuergoek aurkeztutako proposamenak: proposamena balioesterakoan, puntuazio handiagoa emango die, eta handitu egingo ditu haien proiektuetarako onartuta dauden aurrekontuen gehienezko zenbatekoen mugak.

- 2.5 Partzuergoa osatzen duten erakundeek proiektuaren erantzukizun partekatua hartuko dute euren gain, eta helbide bakar bat jakinaraziko dute, espedienteari buruzko administrazio-jakinazpenak bidaltzeko. Erakunde bakoitzak izango duen parte-hartze ehunekoa, eskubideak eta betebeharrak hitzarmen batean bildu beharko dira; eta hitzarmen hori eskabidearekin batera aurkeztu beharko da. Erakunde bakoitzak hitzarmenean berariaz adierazi beharko du bere gain hartzen dituela parte-hartzearen ehunekoa eta proiektu osoaren erantzukizun subsidiarioa.

3. DOKUMENTAZIO ZEHATZA:

- 3.1 Eskabide-orria sinatuta. Bertan erakunde eskatzaileak adierazi beharko du ez dagoela sartuta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua onuraduna izatea galarazten duten debekuren batean.
- 3.2 Hegoaldean garapena sustatzeko proposamenak edota Basaurin garapena eta sentsibilizazioa bultzatzeko heziketa-ekintzak aurkezteko berariazko formularioak, testu honekin batera doazenak (eranskinetan teknikari eta finantzaketari buruzko datuak ere bilduko dira).
- 3.3 Erakundearen IFZren fotokopia.
- 3.4 Eskabide-orria sinatu duenak erakundearen izenean jardun dezakeela egiaztatzen duen agiria, eta pertsona horren NANA.
- 3.5 Basauriko Udaleko Herritarren Parte-hartze Erakundearen Erregistroan inskribatuta ez dauden erakundeek, aipatutako agiriarekin batera, dagokion erregistroan inskribatuta egoteko egiaztagirien fotokopia eta erakundearen estatutuen fotokopia aurkeztu beharko dituzte.
- 3.6 Udalari ez bazaio baimenik ematen zerga obligazioak betetzei dagozkion datuak eskatzeko: zergak behar bezala ordainduta daudela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira; zerga-administrazio eskudunak urte horretan bertan emandako agiriak, hain zuzen ere.
- 3.7 Ez bazaio baimenik ematen Gizarte Segurantzako obligazioak betetzei dagozkion datuak eskatzeko: erakundeak Gizarte Segurantzarekiko zorrik ez duela egiaztatzen duten agiriak, edo bere agindupeko langilerik ez duela egiaztatzeako, Diruzaintza Orokorra urte horretan bertan emandakoak.
- 3.8 Basauriko Udalak finantzatzeko aurreko lankidetzak ekintzei buruzko aitoren sinatua. Ekintza horiek zein fasetan dauden jakinarazi beharko da (aribidean, amaituta, justifikatzeko, edo Udalak jada justifikazioa onartu duen).
- 3.9 Udalaren diru-laguntzaren bat edo beste azalpen batengatik Udalak emandako ordainketaren bat inoiz jaso ez duten erakundeak ez dira Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta egongo; hori dela eta, emango zaien «Hirugarrenen Fitxa» aurkeztu beharko dute.
- 3.10 Gizarte-politika Sailak (Lankidetzak) beharrezkotzat jotzen dituen agiri eta datu osagarri guztiak eskatu ahaliko ditu, aurkeztutako eskabidea behar bezala ebaluatzeko eta ebazteko.

4. AURKEZTEKO EPEA:

HILABETE, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik.

5. PROPOSAMENAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK:

Proposamenak balioesteko, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat: a) proiektuaren kalitate teknikoa (30 puntu); b) eragileen gaitasuna eta harremanen kalitatea (35 puntu); c) genero-ikuspegia (15 puntu); eta d) aurrekontua (20 puntu). Irizpide bakoitzaren ezaugarri zehatzagoak, eta horiek baremoan duten eragina jakiteko, oinarri hauekin batera doan taula begira dezakezu.

6. DIRU-LAGUNTZEN INSTRUKZIOA EGIN, ETA HORIEI BURUZKO EBAZPENA EMATEKO ORGANO ESKUDUNAK:

Gizarte-politika Arloari (Lankidetzza Atala) dagokio prozeduraren instrukzioa. Alkatetzarena izango da ebazteko eskumena, Gizarte-ongizateko Informazio Batzordearen aurretiazko, nahitaezko eta loteslea ez den irizpenarekin.

7. EBAZTEKO EPEA ETA JAKINARAZPENA EGITEA:

6 hilabetekoa izango da eskaerak ebazteko eta erakunde eskatzaileei jakinarazpena egiteko gehieneko epea, deialdi hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita; hala egingo da onetsitako zein ezetsitako diru-laguntzekin. Ebazpenak, bestalde, amaitu egingo du bide administratiboa.

Ebazpena jakinaraziko da eskabidean adierazitako tokian, posta bidez eta jaso izanaren egiaztagiriarekin.

8. DIRU-LAGUNTZAK ZURITZEKO EPEA:

Gehenez 3 hilabeteko epea egongo da emandako diru-laguntzak zuritzeko, diruz lagundutako proiektua amaitzen den datatik zenbatzen hasita.